




HAZIAK IDAZLE LEHIAKETA

IRABAZLEEN TESTUAK
2026 - 11. EDIZIOA



HAZIAK IDAZLE

• Epaimahaia	2
• Ipuinak	
○ Alaiza eta bere laguna	3
○ Ze ametsa!	5
○ Lorelinen ametsa	6
○ Gatu ameslaria	7
○ Amests baten infernua	8
○ Naiararen ametsa	10
○ Saioaren amets bitxia	12
○ Aneren mundua	13
○ Kriston besta baten ondoriak	14
○ Muxua	16
• 2026eko afitxa	18

Epaimahaia

Elise Dilet

IKAS zentroko dokumentalista eta idazlea

Ecrivaine et documentaliste du centre IKAS



Aurelia Arkotxa

IKER zentroko ikertzailea eta idazlea

Ecrivaine et chercheuse au centre IKER

Paxkal Bourgoin

Irakaslea, idazlea eta marrazkilaria

Enseignant, écrivain et dessinateur



Battit Coyos

Irakasle, idazle, ikertzaile eta euskaltzaindiako kidea

Enseignant, écrivain, chercheur et membre de l'Académie de Langue Basque

Alaiza eta bere laguna

Gau hori arrunt berezia zen, dena esplikatuko dautzuet !

Abendoaren 5a ginen, aratseko 11-ak ziren. Etxe batean ginen nun neska bat bizi zen. Alaiza deitzen zen eta 15 urte zituen. Ile beltzak zituen, begi berdeak eta aski fina zen.

Gau hortan bere ganbaran lo egiten zuen. Bere ohetik arrabots bitxi bat entzun zuen eta iratzarri zen. Uste zuen haizea zela beraz berriz lokartu zen. Bainan gatu bat zen. Gatu hori, barnera sartu zen eta kanapearen gainean siesta bat egin zuen. Lo egin eta, Alaizaren ganberara joan zen. Neska berriz jeiki zen eta bere inguruan ardiak denetan ikusi zituen : ofearen gainean, apaintze-mahaiaren gainean ere... Boh denetan !

Erabaki zuen gatua segitzea. Horrentzat, Alaiza saloinera joan zen eta oino ardiak denetan baziren. Ez zakien batere zer gertatzen zaion ! Berinatik so egin eta, arrainak ikusi zituen. Hortik pasatu zen eta beste mundu batean sartu zen. Erreka bat bazen. Barnean arrainak igerikan ari ziren eta goxokiak denetan baziren.

Bat batean, etxe bat ikusi zuen, barnera sartu zen. Emazte zahar bat agertu zen eta gatua bere ondoan jarri zen. Emazteak xapel luze bat bazuen puntta zorrotz batekin. Gainera, xudur lodi eta makur bat bazuen botoin ainitzekin. Horrez gain, bere ondoan galdara haundi bat bazuen. Hor, Alaizak ulertu zuen bere parean sorgin bat bazuela. Eta bai gatua mintzatzen zen eta bai podere bat bazuen. Anartean, sorginak eta Alaizak elgarrizketa bat ukan zuten :

Hortik goiti Alaiza eta gatua lagunak bilakatu ziren !

Emaztea hasi zen :

« -Zu gatura ez zira mintzatzen ! Beraz neskatxa, nola deitzen zira ?

-Alaiza deitzen naiz eta ez dakit batere zer gertatzen zautan ! »

Sorginak gatura begiratu zuen eta irri maltzur bat egin zuen. Alaizaren eskua hartu zuen eta ganerrara eraman zuen. Emazteak, Alaiza bere etxean preso hartu zuen. Momentu hortan, gatura agertu zen bere jabea gaixtoa zela. Hortik goiti, plano bat eraiki zuen Alaizaren libratzeko. Gatuak deliberatu zuen sorgina galdararen barnera pusatzea eta erretzea. Beraz hori egin zuen. Alaiza eta gatura, etxetik ateratzeko, berinatik berriz pasatu ziren, hetsi zuten. Berriz, mundu normalera itzuli ziren.

Neskaren oherat joan ziren. Alaizak gatuari galdera bat pausatu zuen :

« -Bainan zer gertatu zaut ?

-Deus, deus amets bat zen ! Berriz lokar zite ! »

Xabina Lapeyrade

Donostei eskola, Baigorri

3.zikloko irabazlea - bakarka

Ze ametsa!

Behin bazen, baserri ttipi batean neska ttipi bat Maiatza izenekoa. Maiatzak hamar urte zituen, eskolara joaiten zen, ardi buru beltzak maite zituen eta Haziak idazle leihaketan parte hartzea ere.

Arats batez, telebista so egiten zuelarik lokartzen ari zen.

Bere amak erraiten dio :

« - Maitza zoaz etzatera orain, akitua zira.» Ohera heltzean segidan lokartzen da.

Gauean, Maiatza ametsetan ari da.

Bere lehen ametsean bere gatua zen itzalean lo eta uste zuen xakur batek bere gatua jaten zuela.

Direktuki iratzartzen da eta erraiten du : « Ah ! Amets gaixto bat zen. » Jeikitzen da komunetara joaiten da eta berriz lokartzen da.

Bere bigarren ametsean, artzain bat bazen. Artzainak bere ardiak arditeiatik ateratzen zituen eta ardiak mendira bakarrik joaiten ziren. Hastapenean, ardiak pentze haundi eta berde berde batean ziren. Han ardiak halan egoiten ziren eta geroxago berriz abiatu ziren. Ongi jan eta, oihan haundi batera joan ziren.

Oihanaren erdian ibai ttipi bat bazen. Ibaiean arrain haundiak baziren, ardi bat botatzen da eta beste ardiek segitzen dute. Ibaia pasatu eta, lurrezko bide bat segitzen zuten. Bide hortik pasatuz, mendiko zerrandei batean gelditu ziren.

Aratsean ardiak zerrandean etzan ziren. Biharamunean, tripa asetu eta berriz mendi kaskora buruz abiatu ziren. Arratsaldean, ardiak mendi kaskora arribatuak ziren. Uda guzia mendi kaskoan egon ziren eta larrazkenean ardiak etxaldera berriz jin ziren.

Goizean Amak bere alaba iratzarri zuen eta Maiatzak erran zuen : Waooh ze ametsa !

Mattin Etcheverry
Donostei eskola, Baigorri
3. zikloko bigarrena- bakarka

Lorelinen ametsa

Behin bazen neska ttipi bat. Lorelin deitzen zen eta joslea zen.

Larrun mendian bizi zen, etxe batean arbolez inguratua. Lorelinek gatu beltza eta maltzur bat bazuen. Aita eta amarik ez zuelakotz, gatu hori bere lagun bakarra eta handiena zen.

Gaur, Lorelinek estalki eta lumatx bat bukatu zituen. Denbora ainitz hartu zuen obra horiek josteko; oso harro zen. Arrain ttipiak baziren lumatxaren gainean eta ardi beltz eta xuriak estalkiaren gainean. Arrats hortan, gatu lumatx berriaren gainean lokartu zen, Lorelinen ohearen ondoan. Neskatzak amets bitxi bat egin zuen, dena nahastua. Atzarri zelarik, oihalen abereak desagertu zirela konturatu zen. Lorelin biziki malerus zen, bere lan ederrak huts eta xuri zirelakotz. Gatuak, leiotik begiratu, ardi artalde handi bat zelaian eta arrain ainitz errekan ikusi zituen. Kanpora lasterka joan zen animaleekin mintzatzeko eta haien konbentzitzeko berriz etxerat sartzea.

Ilunabarrean, Lorelin bere ohean etzan zenean, ardiak eta arrainak estalki eta lumatxan itzuli zirela ikusi zuen. Pozik eta lasaitua, lokartu zen bere ardiak kondatuz. Egun hartatik goiti, abereak gauero ateratzen ziren ; gatu ere, ez ehizatzeke baizik eta artaldea zaintzeko.

Eline Puyfaucon / Lorena Murillo
Sainte Marie eskola, Azkaine
3. zikloko irabazleak - taldeka

Gatu ameslaria

Behin bazen, Oreo deitzen zen gatu lodi bat. Arratsaldea zen, aro txarra zen, euri eta haize ainitz bazen eta gatuaren nagusiak ez zuen lanik. Bere ohean pausa baten egitea erabaki zuen. Oreo gatura ere kanapean, goxoki pausatzen ari zen. Ametsetan ari zen : berinetik arrainak ikusten zituen. Gose zen, beraz arrain batzu arrantzatu zituen. Ur ainitz bazen, ura bere gana azkar heldu zen eta itotzea beldur zen.

Bat-batean haizeak azkar ufatu zuen eta berinak ideki ziren. Oreo iratzarri zen. Panikatua zen eta Amaia bere nagusiaren oherat lasterka joan zen.

Amaia 30 urteko emazte ederra zen, ile beltz luzeak zituen eta begi berdeak zituen. Erroman bizi zen. Amaia lo sakon batean zen. Bera ere, ametsetan ari zen : baserri batetara joan zen eta ardi batzu ikusten zituen. Denetan ziren : kanpoan, saloinean, ganbaran, ... Oreo Amaiaren ametsan sartu zen baina ardiak ez zituen soportatzen. Sobera harrabots egiten zuten. Oreo kexatu zen eta ardi bat jo zuen baina ardi guziak elkartu ziren eta bere gana etorri ziren. Gatura beldurtu zen eta egon gelara lasterka berriz joan zen. Baina ardiek gatuaren gibeletik segitzen zuten. Gatura hainbeste izitua zen nun alditxartu zen, eta kanapetik erori zen. Bere burua zolaren kontra kaskatu zuen eta berriz iratzarri zen.

Uffff !! Hatsa hartu zuen, ohartu zelarik ametsgaixto bat baizik ez zela ! Amaia jeiki zelarik, bere etzanaldiko abenturak kondatu zizkion eta biak irriz karkailaka hasi ziren.

Eden JOVANOVIC - Darko JOVANOVIC - Unai MOUJICA - Aintzane Irazu

Biscay - Unai HARISTOY - Zélia GARCIA

Aiherrako eskola libroa, Aiherra

3. zikloko bigarrenak- taldeka

Amets baten infernua

Lore deitzen naiz, eta barneko tenpesta bat bizitzen dut. Ez dakit noiztik hola nintzan. Hiru egun? Hilabete bat? Bi aste? Justu egun hortaz oroitzen naiz. Urriaren 23a ...

“ Lore nun zira? Ah geldi! Iziarazi nauzu! Are orain, joan behar dut.

- O ez! Otoi, ez zira hemen egoiten ahal?

- Badakizu joan behar dutala, nire aitamak nire beha dira mendirat joaiteko!

- Baina ortzantza bada!

- Bai baina, ez dut nire aita aspalditik ikusi eta momenta bat familian pasatu nahi du!

- Bon, addio beraz, eta ibilaldi on !

- Milesker, addio eta bihar arte !”

Bai, hor dut azken aldikotz nire lagun hoberena ikusi, Ainara deitzen zen. Arrats berean nire amak sartu zen, eta ...

“Lore, zato otoi !

- Zer da? Kontzerturateko lekuak ukan dituzu ?

- Ez, ez maitia ...

- Zer da beraz ?

- Ainara, Ainara hil da ...”

Hor, nire zangoek lasatu ninduten eta erori ninzen, egiazki eta nire buruan.

Lo egin nahi nuen dena ahanzteko, oihi egin nahi nuen nire zorigaitza deneri jakinarazteko eta beste gauz anitz egin nahi nituen, baina ez nintzen mugitzen ahal. Preso bat bezala nintzan, orduan lokartu nintzan.

Hor zautan lehen aldikotz jin, nire amets gaixtoa eta egunero lo egin nahi dutalarik, berriz jiten zait gogora .

Amets horren gauza guziek niretako zerbait erran nahi dute. Ainarak, ardiek, arrainek eta mendiak. Nire aitamek beti erran zautaten irudimen sobera banuela. Hor idurikatzen zautan nire irudimena nire kontra joaten zela. Infernu bat zen. Mendia hilkora zen han baitzen hil. Ainarak, bere izena bezala, xoriak bere animale maiteenak baitziren. Dena berari lotua zen. Bukatzeko, ardi bakarra, ni bezala, bakarra eta tristeena bainintzan.

Ez nintzen gehiago kolegiorat joaiten, ez eta nire ofetik ateratzen gainera. Egunak eta asteak pasatzen ziren. Egun batez, nire ama ganbaran sartu zen eta, lehen aldikotz ixtripua danik, leihoak ideki zituen.

“Maitia, norbait jinarazi dut.

-

Ez dut nehor ikusi nahi! Erran nuen.

- Zazpi hilabete hola zirela ez zirela zure ohetik ateratzen !

- Zazpi hilabete!"

Emazte bat nire ganbaran sartu zen.

- Egun on ! Uxue deitzen naiz, psikologoa naiz eta hemen naiz zure laguntzeko.

- Milesker baina ez nau nehork laguntzen ahal, nihaur ez naiz hemendik ateratzen ahal ere.

- Nundik ateratu ?

- Nire infernutik.

- Baina entseatzen ahal gira! "

Orenak mintzatu ginen, orenak nigarrez aritu nintzan. Egunkari batean idaztea proposatu zautan eta, hola hasi nuen nire malerusa idazten. Uxue joan eta, kalmeago senditzen nintzen eta sukaldera jautsi nintzan lehen aldikotz bezala. Eskalarren beheran, gelditu nintzan, dena aldatua zen ! Nire anaiak nire izaria bazuen, gatusa ez zen gehiago umea eta aitaren ile xuriak ageri ziren ! Orduan, berriz nigarrez hasi nintzan eta denak jin ziren nire ttinkatzeko. Beste egunetan nire ganbaran jaten nuen eta ez nuen denbora pasatzen ikusi.

Emeki emeki, egun egunez, gehiago nire ofetik ateratzen naiz eta batzuetan irri ttipi bat eskapatzera uzten nuen nire anaia edo gatuarekin. Baina gauean oraino irartzatzen nintzan amets gaixtoagatik. Halere hastapenean baino azkarragoa senditzen nintzan.

Egun batez nire amak proposatu zautan erosketen egitea berarekin joatea, lehen aldia izanen zen etxetik ateratzen nintzala. Baieztatu nuen eta bitxi egin zautan baina halere, erran behar dut nitarik parte bat kontent zela ateratzea. Sartu eta harro senditzen nintzen eta nire ama ere. Zuentzat ez da deus baina niretako urrats bat libertatea buruz zen.

Hilabeteak ez dutala nire egunkaria ideki, nola berriz hasi ? Lehenik lagun berri batzuk nire bizian sartzan utzi nituen. Uxue beti ikusten dut, zeren eta ez bainiz beti untsa senditzen, batzuetan oraino nire ganbaran gordetzen naiz. Ere bitxi atxemaiten ahal duzue baina liburu batean, esaldi bat atxeman dut laguntzen nuena :

" Bizi izan baitzira aintzin,

Bizi zaiteke gero".

Leira Alfaro

Donostei, kolegioa, Baigorri

4. zikloko irabazlea - bakarka

Nahiararen ametsa

Gaua besteak bezala zen, kalme zen. Naiara oheratu zen. Bere murruan, arrainak eta espiralak baziren. Bere mihisietan, marrazkiak baziren : ardiak, xoriak, hostoak eta arrain bat. Bere burdikoak marradunak ziren. Beltzak, xuriak eta marroinak ziren. Naiara lokartzen hasi zen eta amets bat bere buruan hasi zuen.

Bere ametsean, Naiara iratzartzen zen. Bere ganbaran zen eta marrazkiak berdinak ziren. Ganbararen atea ideki eta, larre haundi bat ikusi zuen. Ganbararen marrazkiak baziren bainan bizidunak ziren. Ez zen etxerik bainan baserri bat ikusi zuen urrun. Ardiak baziren, hostoak belarrean eta xoriak zeruan. Urrunago, erreka bat bazen eta arrainak baziren. Momentu bat eta gero, gizon bat heldu zen baserritik.

« Egun on ! » Gizonak erran zuen. « Nola deitzen zira ?

- Naiara » erantzun zuen Naiarak.

« Ni Bixente, deitzen naiz. Zure ametsean gira, zure ametsetik ateratu nahi baduzu, baserriaren gibelean oihan bat bada. Harpe batean, belarra bada. Harpe huntara joan behar zira eta han, belarra hartuko duzu eta baserrira ekarriko duzu nire behientzat zeren eta ez baitut gehiago belarrik.

- Eta belarra ez badut ekartzen, zer pasatuko da ?

- Zure ametsean egonen zira betiko. Egun bat baduzu belarra ekartzeko ».

Naiarak ez zuen bere ametsan egon nahi beraz, segidan oihanera joan zen. Oihana ilunean zen. Oren erdi bat eta gero, Naiara oraino ibiltzen zen. Baizik arbolak baziren. Momentu bat eta gero, Naiarak arbol bat ikusi zuen eta arbol huntan eskailerrak baziren. Naiarak igan zituen eta etxola bat bazen tirolinarekin. Naiara biziki kontent zen. Tirolina hartu zuen eta beste etxola batean lurreratu zen. Naiara arbolatik jautsi zen. Eta ibiltzea segitu zen.

Orenak pasatu ziren eta Naiarak belarrik ez zuen oraino aurkitu. Momentu bat eta gero, Naiara erreka baten aintzinean gelditu zen. Errekan, itsasuntzi puzgarri bat arraunekin baziren. Naiara itsasuntzi puzgarrira igan zen eta arraunekin aintzinate zen. Hamar minutu eta gero, Naiara harpearen aintzinean gelditu zen. Beraz harpera joan zen. Harpea iluna zen. Oren bat eta gero, Naiarak ez zuen oraino belarra aurkitu. Naiara igarobide hetsi batean pasatzen zen eta gela batera heldu zen. Gela horretan, belarra eta eskuorga bat baziren. Naiara biziki kontent zen. Denbora ez galtzeko, Naiarak segidan belarra eskuorgan ezarri zuen eta belarrarekin ateratu zen. Naiara mendi baten gainean zen. Elurra bazen eta elur-lerra bat. Naiara bere eskuorgarekin elur-lerrarat igan zen eta jautsi zen. Bixenteren baserriaren ondoan heldu zen. Bixente kanpoan zen, Naiara goaitatzen zuen.

« Biba zu ! » Bixentek erran zuen.

« Belarra ekarri duzu. Milesker belarra ekartzeagatik. Ez nuen gehiago belarrik beraz nire behiak gose ziren. Orain, zure ametsetik ateratzen ahal zira. »

Eta Naiara iratzarri zen. Bere amak deitu zuen eskolarat joaiteko. Eskolan, bere ametsa untsa zela pentsatu zuen eta bere ametsean egoitea nahiago ukanen zuen eskolara joaitea baino.

Oihana Erramouspe Moussou
Donostei, kolegioa, Baigorri
4. zikloko bigarrena- bakarka

Saioaren amets bitxia

“Neska gazte baten istorioa kondatuko dautzuet:

Arrats batez, Saioa, neska gaztea bere ohean ezarri zen, bere mihiseak bere gainean ezarri zituen. Bere mihisen gainean ardi xuri batzuk baziren eta arrain batzuk ere. Saioa lo sakon goxo batean sartu zen bainan begiak hetsi orduko bere mihisien ardiak animatu ziren, mintzatzen hasi ziren. Batzuk familian ziren, beste batzuk lagunekin mintzatzen ari, batzuk irri egiten.

Baina bizi eder hartan baginakien zerbait pasatuko zela. Ardi beltzaharan bat bazen zoko batean, bakarrik. Ez da ez zuela lagunik bainan ez baitzituela beren eleketak maite, beti kritikatzten edo gauza txarren erraiten.

Ardi beltzak ez zuen jaten. Besteei begiratzen zien, bere ezberdintasunaz pentsatzen ari. Ez zuen ezgauza txarrik egiten, ez itxura berezirik ere, koloreak baizik ez baitzuen desberdina.

Gauan zehar beti ardi xuriek mintzatzen segitzen zuten, irri egiten. Aldiz ardi beltza beti bakarrik bainan berdin zitzaion. Bixtan dena nahiago zuela lagun batzuekin izan edo bere familiarekin ere ontsa zitaikela bainan gisa artako lagun batzuk ukaiteko ez zuen balio. Ez ziren lagun egiazkoak ere.

Bainan gau hori ez zela besteak bezala, ilargi osoa jarri zen beren gainean. Oihu batek ardi guziak jatzarrarazi zituen. Bat batean, itzal haundi eta azkar bat beren aintzinean jarri zen. Otso haundi, azkar eta beldurgarri bat zen. Ardi guziak, haundienak, zaharrenak, bildotsak, eri edo akerrak denak jan zituen. Ontsa jan zuen arrats hartan bainan ez zuen aski azken ardi bat ikusi zuen urrunean. Hurbildu zen bainan ohartu zen ez zela besteak bezala, beltza baitzen. Otsoaren gibelean bere otso ttipia gordetzen zuen. Mareluski, otso ttipia aintzinatu zen eta ardi beltza hasi zen ausikitzen. Otso amak erran zakon ez zuela sekulan ardi beltz bat jan behar, beltzak beti txarrak baitziren eta beti zikinak.

Ardi beltza momentu baten dako bederen besteak baino indartsuago senditu zen.

Eta arrainek Saioari erran zioten jatzar zaite, hori guzia bakarrik amets bat da, tenorea da. Jatzarri zen eta ohartu zen bere amak zuela jatzarrarazi.”

Juliana Paulerena eta Marina Ardantz

Donostei, kolegioa, Baigorri

4. zikloko irabazleak - taldeka

Aneren mundua

Egun osoa eman ondoren Aneren gogo bakarra ohera sartu eta mundua ahaztea zen.

Burua burko bigunaren gainean jarri zuenean, bere gela piskanaka desagertzen hasi zela iruditu zitzaion. Batean, ez zegoen bere logelako sabiari begira, espazio zabal eta koloretsu bati baizik.

Bere manta gainean bota zuenean, zerbait arraroa gertatu zen: bere gorputzaren gainean zerbait poliki mugitzen zen. Ardi txikiak eta handiak agertu ziren bere manta orde. Ardiak piskanaka ibiltzen ziren Aneren gainean. Batzuk berari begira geratzen ziren, beste batzuk bazka bilatzen ari badira bezala makultzen ziren. Baina denak oso lasai zuen. Anek ez zuen beldurrik sentitzen egoera horretan beste pertsona batzuekin konparatuz.

Baina sorpresa ez zen hor amaitu. Burua pixka bat altxatu zuenean, bere buru gainean bi arrain handia ikusi zituen, airean igeri egiten, unetan bezala. Arrain horiek, zuriak eta beltzak, zirkulu handiak egiten zituzten sabaian, poliki-poliki, eta haien mugimenduek hipnotizatu zuten Ane.

Arrainekin batera, landare bitxi batzuk ere agertu ziren, bere logelan flotatzen, mugimendu leun batekin. Bere ametsak magia bezala zeuden, eta airean musika lasai bat entzuten zela, Anek lasaitasun handia sentitzen zuen animalia horiek begiratzen. Arrain horiek argi pixka bat ematen zioten gelari haien mugimendu leunekin.

Anek ez zekien amets horretan. Bere gela unibertso magiko bat zen, mugarik gabe. Azkenean bere behiak itxi zituen eta loak hartu zuen izanteagatik baina bere amak logelako atea ireki zuen. Argia piztu zen eta amets guztia desagertu zen Ardiak eta arraina joan egin ziren eta logela berriro leku normala zen. Ane esnatu zen eta ez zuen gogoratzen zer amestu zuen.

Bakarrik sentitzen zuen oso ondo lo egin zuela, eta historio hau errepikatzen da gauerO.

Urko Recarey, Unai Izaguirre, Markel Fajardo

San Bixente kolegioa, Hendaia

4. zikloko bigarrenak - taldeka

Kriston besta baten ondorioak

Behin bazen 19 urteko eta Izaskun izeneko neska bat. Erabaki zuen Tulalaika festibalara joatea besta egitea biziki maite baitzuen. Beraz, bere lagunekin, Pagolako bidea hartu zuten. Arribatu eta, fite ohartu ziren giroa biziki ona zela eta trago bat hartzen hasi ziren, ta beste bat, ta beste bi, etb... Izaskunen lagunak Xiberoots-eko kontzertura joan ziren eta anartean Izaskunek beste lagun talde bat atzeman zuen, norrekin tragoak eta txupitoak edaten segitu zuen. Eguna pasatzen zen eta oren guziz lagun taldez aldatzen zuen eta aldi oro tragoak hartzen zituen. Egunaren bukaeran ohartu zen kriston besta egin zuela biziki mozkorra baitzen, orduan, etxera sartzea erabaki zuen.

Maleruski, ez zituen ideiak biziki argi eta zailtasunak ukan zituen autobus-geltokia atzemaiteko. Denetan xerkatzen zuen eta momentu baten buruan norbaitek lagundu

zuen. Azkenean, geltoki onera iritsi zen. Autobusa hartu zuen Garaziraino, han bertan treinez Kanboraino sartzeko. Hainbeste denbora pasatu baitzuen geltokia xerkatzen, ez zuen oren oneko autobusa hartu, beraz, zoritxarrez, treina huts egin zuen ondotik.

Hurrengo treina itxarotean, karrikan lokartu zen. Norbaitek suhiltzaileak deitu zituen

Izaskun lurrean lokartua ikusi eta. Aski fite etorri ziren eta kamioian igoarazi zuten.

Bidean, gidariak nolanhika gidatzen zuen eta biziki lanjerosa zen. Jakin dugu geroago gidaria ere Tulalaikan zela egunean eta mozkorra zela. Bat-batean, aintzineko automuila zuzen jo zuen eta istripu bat gertatu zen : kamioia irauli egin zen.

Kasik bidaiari guziak zaurituak ziren eta Izaskun koman sartu zen. Denak Donapauleko ospitalera eremanak izan ziren.

5 orenen buruan Izaskun komatik atzarri zen buruko min handi batekin. Kontziente zen egin zuena biziki lanjerosa zela, beti norbaitekin sartu behar zela edan zuelarik, ez zela nehoiz gidari mozkor baten autoan igo behar eta azkenik erabaki zuen ez zuela gehiago edanen.

Bere ospitaleko ohean jarri zen, dute bat eskuan, eta bezperako katastrofeari pentsatuz. Bere buruan bazarra zen, zenahi-etaz oroitzen zen eta hutsune handiak zituen ere. Ez zen denetaz oroitzen. Jendeei kontatu zituen zozokeriak berrikusten zituen baita edarien prezioak, erre zituen zigarroen kea eta goitika egin zuen oroitzapena.

Etxera sartu eta, bere lagunekin elkartu ziren eta haiei kontatu zien gertatu zitzaiona.

Prebentzio asko egiten zuen ber gauza gertatuko zitzaaien beldur baitzen. Geroztik, Izaskunek ez du gehiago edaten, bere lagunak zaintzen ditu eta beti autoa hartzen du.

Idoia Duperou eta Maixa Etchart

San Josepe, Ustaritze

5. zikloko bigarrenak - taldeka - irabazlea

Muxua

Musu horrek ene bizia aldatu zuen edo, hobeki erraiteko, zangoz gora ezarri zuen. Betidanik, ene jendakiari hurbil izan nintzan eta amatxirekin, harreman bereziak nituen. Eskolara joan aintzin, amak haren etxera eremaiten ninduen lanerat goizik joan behar baitzuen. Gaueko arropetan nintzalarik, besotan hartzen ninduen eta kasik, ene ohetik amatxiren etxean nuen oherat pasatzen ninduen, bero beroa atxikitzen zuela botoila ur bero bati esker. Lagunekin eskolan, ez ginen segurrenik ere hoberenarik halere, egin behar ginituen gauzak aiseska egiten ginituen eta kanpoko tenoretan, gure bizia jostatuz segitzen ginuen. Errebotean aritzen ginuen, gure kirol garrantzisuena hori ginuen. Erreintak gogotik uzten gintuen bera ere pilotari ohia zelakotz. Eskola eta gero, lortu behar ginituen diplomak ukan ondoan, lanari lotu ginuen. Nik, betidanik, zurgina izan nahi nuen bainan beste aments bat ere gogoan nuen, itsasoa zeharkatzea, bidaiatzea, beste herrialde batzuren ezagutza egitea, jende desberdinen topaketak egitea. Xantza bat ukan nuen, hola erranen dut, ez baitakit bestenaz nola aipatu egun batez, diploma ukan orduko, sasoinaren egiteko lana xerkatzen nuen noiz gizon bat hurbildu zitzaidan. Gizon hori biziki luzea zen bai eta ere, portaera berezi bat zuen. Hitzetan erraiteko zailegi zait bainan segidan konprenitu nuen gisakoa izanik ere, ez nuela kakinarazi beharko. Itsasontzi baten jabe zen eta langileak pagatzen zituen bakalaua arrantzatzerara joaiteko berarentzat. Ni gogotik zurgintzan hartuko ninduen bere itsasontzia zaintzeko zeren, arazoak beti gertatzen baitziren, izan zedin ortzantz edo haize ukaldi, eta desmasiak baitziren aldi oro. Hala nola, ene amentsa bete nuen : ene zurgin lana itsasontzian egiten nuen eta denbora berean, bidaiatzen nintzan. Harri batekin, bi xori, erran zaharrak dion bezala ! Amatxi nitaz biziki harro zen bainan ene joaiteak min egin zakon.

Amodioa hola ezagutu nuen. Kanadako alderdian ginelarik orainokoan, bakalau sasoina bukatzeko punduan ginuelarik, pausan nintzan arratsalde batez, neska eder bat topatu nuen hirian, ene azken oroitzapenen erosten ari nintzalarik. Aztigar izerdia amatxiri ereman nahi nakon, betitik ainitz gustatzen baitzizakon, bereziki matahamiekin bistan dena. Neska luzea zen, bilo gorraile batzuekin, eta bere irria, zer irri ederra ! Barnea dena nahasten zitzaidan eta horra arte, sekulan ezagutu ez nituen emozietaz ohartu nintzan. Neska emankorra zen eta lehen begi ukalditik, elgar maitemindu ginuen. Euskal Herrirat elgarrekin sartu ginuen eta laster ezkondu. Gure lehen alaba aski fite sortu zitzaigun eta gure bizia dena aldatu. Enetzat, zer zangopilatzea, lehen musua alabari eman nakolarik ! Ez nakien zer gertatzen zitzaidan : biziki kontent nintzan ene familiaz eta denbora berean, ez nuen konprenitzen goxotasun eskas hori nundi heldu zitzaidan, amatxik dena kondatu arte. Nihaur aita bilakatu nintzan ene aita ezagutu gabe eta hori edozoinentzat, zaila izanen zen !

Egun hartan, ene aitaren xerka joan behar nuela erabaki nuen. Ene maiteari aipatu nakolarik, untsa konprenitu eta sustengatu ninduen eta hala nola, kasik ohartu gabe, Japoniako alderdira itsasontziz abiatu nintzan. Bidaia luzea izan zen halere, ene gaitasunak baliatu nituen han hemenka itsasontziari petatxuak egiteko beharrean zenean. Heldu nintzenean, enbaxadara joan nintzen eta segidan, lagundu ninduten aita atxemaiten. Jakin nuen lehen gauza beti bizi zela izan zen, bainan biziki desorekatua zen bizi mota bat bizi zuela. Aterbetxe batean aurkitu nuen azkenean eta mintzatu ginen. Erran zautan bizi triste bat bizi izan zuela, arrunt galdua izanez, ainitz denbora eman zuela bere buruarekin bakea egiteko. Aitarik gabe haunditu zen bera ere, bainan hark ez zuen nehor ukan bizian gidatzeko, laguntzeko eta gehienik behar zuena, maitatua izaitzeko. Elgarretaratze horretatik landa, biak hobeki senditu ginen segidan, pizu haundi batek bat-batean utzi bagintu bezala. Erran gabe doa aitari eskaini nakola enekin etxera sar zedin, ene familia ezagutzeko eta amatxi ikusteko. Erran gabe doa ere baietz ihardetsi zautala. Hala nola arrats batez, amatxiren etxean elgarretaratu ginen laster, aitaxiren irria entzun ginuen, ene alabarena ere hartarik laster eta ni, alai nintzen, gehienik maite nituen jendeen artean.

Christine Paulerena
Helduak - irabazlea

HAZIAK IDAZLE



EKAINAK 09 JUIN - 18:30

SAN JOSEP LIZEOA - LYCEE SAINT JOSEPH

UZTARITZE - USTARITZ

